

# Fronte Popular Berria izan da garaile Ipar Euskal Herrian

 ONINTZA IRURETA ETA JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**E**skuin muturrari aurre egiteko bildu diren ezkerreko indarren aliantzak lortu du boto gehien Ipar Euskal Herrian. Ezkerreko aliantzak 11.000 botoko aldea atera dio bigarrenari, RN Batasun Nazionalari. Macronen Ensemble alderdia hirugarrena izan da. Fronte Popular Berria hiru bozka eremuetan lehen indarra izan da.

Fronte Popular Berriak Ipar Euskal Herriko botoen %31,98 (55.206 boto) eskuratu du. Eskuin muturrak, RN Batasun Nazionalak, %25,61 (44.214) bildu du eta Macronen Ensemble alderdiak %22,28 (38.470).

Fronte Popular Berria hiru barrutietan izan da irabazle. Laugarrenean Iñaki Etxanizek botoen %38,01 lortu du; bosgarrenean Colette Capdeviellek %32,30,

“Lurralde honetako adostasunak eta funtsezko baloreak babesteko momentua da”

eta seigarrenean Peio Dufauk %29,43.

Eskuin muturra hiru barrutietatik bitan bigarren indarra izan da, laugarrenean eta bosgarrenean. Seigarrenean, berriz, hirugarren tokian gelditu da, Macronen alderdiaren atzetik (laugarren barrutian ez da egon Macronen aldeko hautagaitzarik).

EH Bai alderdiak Fronte Popular Berriaren barruan hartu du parte hauteskunde hauetan. Emaitzak jakinda,

sare sozialetan azpimarratu du Ipar Euskal Herrian eta hiru barrutietan Fronte Popular Berria izan dela lehen indarra, eta era berean, kezka agertu du eskuin muturrak aurrera egin duelako: “Lurralde honetako adostasunak eta funtsezko baloreak babesteko momentua da. Denek arduraz jokatzera deitzen dugu”.

## **BIGARREN ITZULIARI BEGIRA**

Baliteke hiru hautesbarrutietan hiru hautagaien arteko lehia izatea bigarren itzulian. Hain zuzen, hirugarren kokatu diren hautagaiak –Lassallek laugarrenean, Lasserrek bosgarrenean eta Lastecoueresek seigarrenean– jakitera eman dute lehian mantentzeko asmoa dutela. Uztailearen 7an izango dute bigarren itzulia. ●

Gorritz Fronte Popular Berria, urdin ilunez eskuin muturra eta urdin argiz Macronen Ensemble.

